

# Balantzeen eguneratzea eta bere eragina urteko kontuetan

**M. Edurne Aldazabal, Ainhoa Saitua**  
EHUko irakasleak

Gure kontabilitate sistemak ez du kontutan hartzen inflazioaren eragina ondare elementuen balorazioan. Hau da, enpresa baten ekonomi eta finantza informazioa laburtzen duten agirietan (Urteko Kontuak) ondare elementu bakoitza eskuratu zen unean harengatik ordaindu zen kopuru osoan baloratzen da. Balorazio honek ez du bereizten ondasun horiek eskuratzen diren une desberdinetan moneta unitatearen eskuratze boterea txikiago denik. Balantzeen Eguneratzea arazo hau neurri batean konpontzen saiatzen da.

Our accounting system doesn't take care about the effect of inflation on the value of assets and liabilities. It means, in the accounts that make an abstract of a company's economic and financial information (The Annual Accounts) the elements are valued on the price we had to pay at its purchase. This valuation doesn't care about the effect that can take the inflation because of the different moments in which the assets had been bought. The Balance Sheet's Update process can solve part of this problem.

1996ko martxoan, Espainiako Gobernurako izan ziren hauteskondeen garaian, Balantzeen Eguneratzeari buruz askotan hitz egin zen enpresa-munduan. Haren ondoren, eta hainbat sektoreren presioak bultzatuta, gai horri buruzko zenbait lege eta foru-arau onartu izan dira. Xedapen hauek enpresek 1997ko ekitaldian zehar aurkeztu behar dituzten Urteko Kontuetan aplikagarriak direnez, lan honen helburua, Balantzeen Eguneratze-legeen aurkezpen labur batean, berauen zergatia eta Urteko Kontuetan dituzten ondorioak aztertzea izango da.

Lehenik, lege horien zergatia ulertzeko, azter dezagun zer den inflazioa eta zein diren bere eragin ekonomikoak ere.

## **Inflazioa**

Inflazioa prezioek etengabe hazteko joera izatea da, hau da, herrialde bateko monetak denboran zehar jasaten duen erosteko ahalmenaren murrizketa.

### **Inflazioaren eragina**

Inflazioak hainbat eremutan eragiten du. Guk alderdi mikroekonomikoak eta kontableak aztertuko ditugu.

#### **Eragin mikroekonomikoak**

1. Eskudirua mantentzeagatiko galera:

Prezioen hazkuntzak monetaren erosteko ahalmena murrizten du. Adibidez,  $t$  ekitaldiaren hasieran 15.000 moneta-unitate baditugu (aurrerantzean *m.u.*), badakigu diru horrekin eskura ditzakegun produktuak zein diren. Baina  $t$  ekitaldian ez erostea erabaki ondoren,  $t+1$  ekitaldian *m.u.* horiekin produktu berdinak erostera joanez gero, inflazioaren eraginez garestiagoak direnez, ezin izango ditugu denak erosi.

2. Kobrantsa-eskubideen balioaren galera:

Eskudirua mantentzearen eragin berdina du. Aurreko adibidearekin jarraituz, guk  $t$  ekitaldian 15.000 *m.u.*ko kobrantsa-eskubide bat badaukagu, badakigu diru horrekin zein produktu erosi ahal izango genituzkeen une honetan, baina eskubidearen epemuga  $t+1$  ekitaldian bada, kobratzen dugunean, 15.000 *m.u.* horiekin ezin izango ditugu produktuak aurreko ekitaldiko kantitate berean eskuratu.

3. Zorrak mantentzearen abantaila:

Dirua eta kobrantsa-eskubideen aurkako kasua izateagatik, zorrak mantentzea komenigarria da. Inflazioaren ikuspegitik, zorrak mantentzean erosteko ahalmenean irabazia lortzen da, itzuli behar den zenbatekoaren balio erreala jaitsi egin delako.

## Eragin kontableak

Kontabilitate-informazioaren helburua enpresaren irudi fidela adieraztea da, hau da, enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen benetako errealitatea adieraztea. Kontabilitateak ematen duen informazioa oso garrantzitsua da, erabiltzaileek, negozioari buruzko erabakiak hartzeko erabiliko dutelako. Adibidez, enpresaren jabe diren akziodunek akzioen balio teorikoa igotzea eta mozkinen banaketarekin dibidendu handiagoa lortu nahi duten bitartean, hartzekodunek edo mailegu-emaleek, enpresaren kaudimena edo ordaintzeko ahalmenean jarriko dute arreta.

Kontabilitateak luzatzen duen informazioa *Urteko Kontuak* deritzen agirietan irakur daiteke. Urteko Kontuak hiru dira: Egoera-Balantzea, Emaizten Kontua eta Memoria. Balantzearen alde batean, enpresak dituen ondasun eta eskubideak adierazten dira, eta bestean, inbertsio horiek gauzatzeko erabili diren finantza-iturriak. Emaizten Kontuak enpresak ekitaldian izan dituen gastu eta sarrerak islatzen ditu, eta horien arteko diferentziaz, emaitza (mozkina edo galera). Azkenik, Memorian, aurreko bi agirietako informazio koantitatiboa ulertzeko eta zabaltzeko, bestelako azalpen koantitatiboak emango dira.

Inflazioak kontabilitatean duen eragina aztertzeko, Egoera-Balantzea eta Emaizten Kontuan oinarrituko gara nagusiki:

Balantzean, lehenago esan dugun bezala, enpresak dituen ondasun eta eskubideak adierazten dira alde batetik, eta bestetik, horiek lortzeko erabili dituen finantza-iturriak.

### EGOERA-BALANTZEA

<b>AKTIBOA</b> (Ondasun eta eskubideak)	<b>PASIBOA</b> (Finantza-iturriak)
AKTIBO FINKOA Ibilgetua	BALIABIDE PROPIOAK
ZIRKULATZAILEA Izakinak Kobranta-eskubideak Finantza-inbertsio iragankorrak Diruzaintza	EPE LUZEKO ZORRAK EPE LABURREKO ZORRAK

**Aktibo Finkoa:** Hemen biltzen diren elementuak Eskuratzeko-Prezioan edo Kostu Historikoan balioztatzen dira. Hau da, erosketa unean ondasun horiengatik orotara ordaindu zen kopuruan.

Inbertsio horiek une desberdinetan eskuratu direnez, inflazioaren distortsioa jasaten dute, kontabilizatu diren uneetako m.u.ek balio erreal desberdina zutelako. Horrela, une desberdinetako prezioak ez dira balio konparagarriak edo homogeneoak.

Aktiboko elementuen artean beste elementu garrantzitsu bat agertzen da: Amortizazio Metatua. Kontu honek bi funtzio ditu:

1. Funtzio ekonomikoa: ibilgetuko elementu bakoitzak jasan duen balio-galera itzulezin eta sistematikoa adierazten du, *amortizazioa* deritzen gastuaren bidez.

2. Funtzio finantzarioa: amortizazioa ekitaldiro zuzkitzen den gastu bat da, baina gastu horrek ez dakar diruirteerarik berekin. Aldiz, enpresa barnean gelditzen da, emaitza kontablea gutxitzean, bazkideen artean banatzen den mozkin txikiagoa delako. Urte bakoitzeko kopuruak bilduz, Amortizazio Metatua osatzen da. Horrela, dagokion ibilgetuaren bizitza erabilgarria bukatzen denean, ibilgetu hori berri baten bidez ordezkatzeko fondo bat egongo da.

Funtzio finantzarioan oinarrituz, Amortizazio Metatuan osatutako fondoa utziko dugun ibilgetuaren balioan oinarritu da. Inflaziorik gabe (prezioek gora egingo ez balute) ibilgetuaren bizitza erabilgarria bukatzean, Amortizazio Metatuan dagoen kopuruarekin aurreko ibilgetuaren berdina eskuratu ahal izango genuke. Baina inflazioa dagoen errealitate batean, osatu dugun fondoarekin bakarrik ezin izango dugu ibilgetu berria eskuratu.

Ikusten denez, inflazioa dagoen merkatuan Eskuratzeko-Kostua edo Kostu Historikoaren printzipioan oinarritzeak balioztatzeke arazoak dakartza, baina datu objektiboak eta ziurtatzeko erraztenak izateagatik, printzipio horri ez zaio alternatiba global egokirik aurkitu.

**Aktibo Zirkulatzailerak:** enpresaren ondarean epe laburrean mantenduko diren elementuak biltzen direnez, inflazio-tasa oso altua eta azkarra ez bada, bere eragina txikia izango da. Aktibo Zirkulatzailerako elementuak etengabe ari dira mugitzen, hau da, azkar erosi eta saltzen dira izakinen kasuan, edo azkar kobratu kobrantza-eskubideen kasuan. Hori dela eta, ez daukate inflazioaren eragina jasateko astirik.

**Fondo Propioak:** galdagarriak ez diren elementuez osatuta daude, hau da, *Kapital-ekarpenak*, *Erreserbak* eta *Emaitzak*. Emaitzari dagokionez, ondoren aztertuko dugun bezala, inflazioaren eraginez, mozkin nominala mozkin erreala baino handiagoa da eta, ondorioz, enpresak mozkin "itxurazkoak" bana ditzake deskapitalizazio-arriskua sortuz (ekitaldiko mozkin ez diren enpresaren aberastasun edo baliabideak banatzen ditu).

**Zorrak:** gorago esan dugun bezala, inflazioaren eragina zorraren hartzekodunak jasango du eta ez zorra duenak.

Emaitzen kontuan enpresak ekitaldian izan dituen sarrerak eta gastuak azaltzen dira eta, haien arteko diferentziaz, ekitaldiko Emaitza.

Gure produktuen prezioak ezartzeko orduan, inflazioa ez badugu kontuan hartu, sarrerak gutxietsita egongo dira. Hau da, salmenta prezioa 100 m.u.koa jartzen badugu  $t$  eta  $t+1$  ekitaldietan,  $t+1$  ekitaldiko 100 m.u. horien erosteko

ahalmena txikiagoa izango da inflazioagaitik. Aldiz, prezioak ezartzean inflazioa kontuan izango bagenu, t+1 ekitaldiko salmenta-prezioa agian 110 m.u.koa izan beharko litzateke, adibidez.

Bestalde, gastuak ere gutxietsita egongo direnez, bi eragin hauek elkarren artean berdindu daitezke.

Baina hori ekitaldian sortu diren gastuekin gertatuko litzateke. Horiekin batera, badaude bestelako gastu batzuk, ekitaldi horretako emaitzara eraman arren, aurreko ekitaldietako m.u.etan esleitzen direnak. Adibidez, aurrerago azaldu dugun Amortizazioa, edo ibilgetuen balio-galera sistematikoa islatzen duen gastua, ibilgetuko elementuen balorazioan oinarritzen da; ondorioz 1.000 m.u.ko inbertsio baten ekitaldiko amortizazio-zuzkidura 100 m.u.koa bada, nominalki zenbateko bera mantenduko da ekitaldi bakoitzean, baina balio errealean kalkulatu bagenu, lehenengo urtean 100 m.u., bigarrenean 110 m.u., hirugarrenean 120 m.u.... zuzkitu beharko genituzke, adibidez.

Beraz, garbi dago gastuen gutxietea sarrerena baino handiagoa dela eta, ondorioz, Mozkin Kontablea (inflazioa kontuan hartzen ez duena) Mozkin Erreala baino handiagoa izango da. Egoera horretan, lehen aipatu den bezala, mozkin kontablea banatzen bada, baliabide gehiegi aterako dira enpresatik, deskapitalizazio-arriskua sortuz.

Memorian inflazioak ez du eragin zuzenik, Memoria Balantzearen eta Emaitza-Kontuaren informazioa osatzen duen txostena delako. Aldiz, inflazioa dela eta, Balantzeen Eguneratzearen ondorioz aurkituko dugu eragina Memorian. Balantzeen Eguneratzea egin ondoren hurrengo gai hauei buruzko datuak adierazi beharko dira:

- Eguneratzea egiteko erabili diren irizpideak eta aldatu diren partidak.
- Ekitaldian zehar Eguneratze-kontuan egin diren aldaketak.
- Partida horren tratamendu fiskala.
- Eguneratzen diren elementuei buruzko informazioa: eguneratze-legea, elementuaren eguneratzearen zenbatekoa, amortizazioaren oraingo eta geroko aldaketak eta eguneratzearen balio garbia.

### **Inflazioaren eragin kontableei aurre egiteko ekintzak: Balantzeen Eguneratzea**

Balantzeak Eguneratzeari buruzko arau guztiek dioten bezala, «zenbait sektorek sarrien eskatu ahal izan dituzten gauzetariko bat enpresen balantzeak erregularizatu edo eguneratu ahal izatea izan da, inflazioak haien ondarearen irudi fidelean eta mozkinetan duen eragina zuzentzeko helburuarekin».

Eguneratzea legez bakarrik egin daitekeen ekintza bat da. Gure herrian eragiketa hau gauzatzeko egin diren azken xedapenak ondorengoak izan dira:

- Bizkaian, “Balantzeak Eguneratzeari Buruzko 96/6 Foru Araua” (BAO 236. zkia. 1996-12-5).
- Gipuzkoan, “balantzeak eguneratzeari buruzko 11/1996 Foru Araua”, (1997-1-20).
- Araban, “Balantzeak Eguneratzeari Buruzko Foru Araua” (AAO 63. zkia., 1997-6-8).
- Estatuan (Nafarroan ere aplikagarria dena), “Aktibitate ekonomikoa garatu eta liberalizatzeko izaera fiskala duten neurriei buruzko Ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretua” (BOE 139. zkia, 1996-6-8).

Badirudi Balantzeen Eguneratzeak inflazioaren eragin kontableak ezabatzen dituela; beraz, ikus dezagun zertan datzan eta zein diren sortzen dituen eraginak.

### Zertan datza?

Kontabilitatean edo, hala denean, erregistro-liburuetan bildutako ondare-elementu batzuen balioak eguneratzen dira.

Lege hauetan guztietan adierazten den teknika oso antzekoa da; azken finean, epe luzeko zenbait aktiboren balioak, Kostu-Historikoan adierazita daudenak, eguneratu (handitu) egiten dira legeak adierazten dituen koefizienteak aplikatuz. Aktibo horiei dagozkien Amortizazio Metatuak ere eguneratu egin behar dira.

### Balantzeen eguneratzearen adibidea (Bizkaiko Foru Arauan oinarrituta)

1991-1-1ean enpresa batek 1.000.000 pta.ko makina bat eskuratu zuen. Bizitza erabilgarria 10 urtekoa jo da, eta urteko Amortizazio-kuota %10eko konstantea.

#### EGOERA-BALANTZEA (1996-12-31)

AKTIBOA		PASIBOA	
IBILGETUA		FONDO PROPIOAK	...
Makineria	1.000.000	E/LUZ.ZORRAK	...
-Amortizazio Metatua	(600.000)	E/LAB.ZORRAK	...
ZIRKULATZAILEA	...		

1996-12-31an, makina horrek kontableki duen balioa edo *Kontabilitate Balio Garbia*, ondorengoa izango da:

<b>KBG = Kostu historikoa – Amortizazio metatua</b>
---

1996-12-31:

Makina: 1.000.000  
- Amort. Metatua: - 600.000  
= **KBG** = **400.000**

### EGUNERATZEA burutzen denean

Balantzeen Eguneratzea aplikatzeko, legeak adierazten dituen koefizienteak hartu beharko ditugu:

#### 9. artikulua: Gehieneko eguneratze-koefizienteen eskala.

Elementuaren erosceta-urtea	Gehieneko egunerapen-koefizientea
1983 eta aurrekoak	1,960
1984	1,780
1985	1,630
1986	1,530
1987	1,430
1988	1,370
1989	1,320
1990	1,260
1991	1,200
1992	1,150
1993	1,110
1994	1,070
1995	1,030
1996	1,000

#### A) Balioen eguneratzea:

Makina 1991. urtean eskuratu zenez, urte horri dagokion koefizientea aplikatuko zaio.

$$\begin{aligned} \text{Balio Eguneratua} &= \text{Kostu Historikoa} \times \text{koefizientea} = \\ &= 1.000.000 \text{ pta.} \times 1,20 = 1.200.000 \text{ pta.} \end{aligned}$$

#### B) Amortizazioen eguneratzea:

Ekitaldi bakoitzean amortizatutako zenbatekoari dagokion urteko eguneratze-koefizientea aplikatuko zaio, hurrengo taulan ikusten den bezala.

<u>Urtea</u>	<u>Am. kuota</u>	<u>Koef.</u>	<u>Am. Egun.</u>
1991	100.000	x 1,20 =	120.000
1992	100.000	x 1,15 =	115.000
1993	100.000	x 1,11 =	110.000
1994	100.000	x 1,07 =	107.000
1995	100.000	x 1,03 =	103.000
1996	<u>100.000</u>	x 1,00 =	<u>100.000</u>
	AM = 600.000		AM eguneratua = 655.000

KH eta Amortizazio Metatua eguneratu ondoren makinak kontableki daukan balioa hurrengo hau izango da:

$$\text{KBG berria} = 1.200.000 - 655.000 = \mathbf{545.000 \text{ pta.}}$$

Balioak eguneratzearen ondorioz, Aktiboan sortutako diferentzia *gainbalioa* izango da:

$\text{GAINBALIOA} = \text{KBG berria} - \text{KBG zaharra}$
--

$$\text{GAINBALIOA} = 545.000 - 400.000 = \mathbf{145.000 \text{ pta}}$$

Gainbalioaren zenbatekoa, kontabilitatean oinarritzkoa den ekuazioa bete dadin (Aktiboa guztira = Pasiboa guztira), Balantzeko Pasiboan adierazi beharko da. Konkretuki, Fondo Propioen barnean Erreserba moduan, hurrengo Balantzean ikus daitekeenez:

#### EGOERA-BALANTZEA (1996-12-31)

AKTIBOA		PASIBOA	
IBILGETUA		FONDO PROPIOAK	
Makineria	1.200.000		
Amort.met.	(655.000)	<i>*XI- 21eko 6/96 Foru Arauaren Egunerapena</i>	145.000
ZIRKULATZAILEA	...	E/LUZERAKO ZORRAK	...
		E/LABURRERAKO ZORRAK	...

Lehen aipatu dugun bezala, ibilgetuak ekitaldiro amortizatu behar dira bere Kostu Historikoan oinarrituta. Balantzeen Eguneratzearen ondorioz balio hori aldatu egin denez, amortizazio-kuota ere aldatu egingo da. Amortizazio-kuota berriaren zenbatekoa horrela kalkulatuko dugu:

#### Amortizazio-kuota berriak:

Amortizazio-sistema, balioak eguneratu aurrekoaren berdina izango da eta eguneratzearen ondorioz sortutako balio-gehikuntza garbia bizitza erabilgarrian geratzen diren ekitaldietan amortizatuko da. Horretarako, ekitaldi bakoitzari zegokion Amortizazio-kuotari, KBGak eguneratu aurretik zuen balioarekiko eguneratzeak ekarri duen gehikuntzaren proportzioa gehituko zaio.

$$\text{Am. kuota}' = \text{Am. kuota} + (\text{KGB} \times \frac{\text{Am. kuota}}{\text{aurreko KGB}})$$

<u>Urtea</u>	<u>Am. Kuota</u>	<u>(KGB x (Am. Kuota /KGB zaharra)</u>	<u>Am. Kuota'</u>
1997	100.000	+ (145.000 x 100.000/400.000)	= 136.250
1998	100.000	+ (145.000 x 100.000/400.000)	= 136.250
1999	100.000	+ (145.000 x 100.000/400.000)	= 136.250
2000	<u>100.000</u>	+ (145.000 x 100.000/400.000)	= <u>136.250</u>
	400.000		= 545.000

### Balantzeen Eguneratzearen abantaila eta arazoak

Prozesu hori aplikatzerakoan hurrengo abantaila hauek aurkitzen dira kontabilitatearen ikuspuntutik:

Orokorrean, enpresen Egoera-Balantzeek balio eguneratuak adierazten badituzte, alde batetik, ondarea islatzean, kontabilitatearen helburu den Irudi Fidelera gehiago hurbilduko dira, eta bestetik, ekitaldiko Emaizta egokiago, fidelago, kalkulatu ahal izango da.

Konkretuki, enpresa bakoitzean, ondokoak gertatuko dira:

1. Eguneratutako elementuen Amortizazio Metatuak lortuko duen zenbatekoa handiagoa izango da eta, ondorioz, inbertsio errealean berreskuratze handiagoa izango da.

2. Ondarearen isla den agirian, Egoera-Balantzean, adierazitako kopuruak handitu egin direnez, hirugarrenek berme handiagoa ikusiko dute eta Kanpo-finantzazioa lortzea errazagoa izango da.

3. Enpresaren finantza-egoeraren eta errentagarritasunaren analisia egiteko, Egoera-Balantzean eta Galdu-irabazi Orrian oinarrituta aztertzen diren zatidura edo *ratio*-en kalkulua errealagoa eta eguneratuagoa da.

4. Enpresaren Balantzeko datuetatik lortutako *Ondare Erreal Garbian* oinarrituta kalkulatu den akzio baten balio teorikoa handitu egiten da.

Azkenik, eguneratze-prozesua enpresa askok aplikatuko balute, enpresa eta sektoreen arteko informazioaren erkaketa fidagarriagoa izango litzateke.

Nahiz eta sektore batzuek Balantzeen Eguneratzea guztiz beharrezkotzat jotzen duten eta abantaila besterik ez dioten ikusten, egia esateko, enpresek Mozkinaren gaineko Zergan gutxiago ordaintzeko asmoz eskatzen dituzte arau horiek, amortizazio-kuota berriak handitzean, Emaizta kontable txikiagoa lortuko dutela dakitelako.

Horrela, hurrengo arazo hauek aurkitzen dizkiegu, kontabilitateetik baino gehiago, arlo fiskaletik datozen arau horiei:

1. Eguneratzea enpresa bakoitzak borondatez aplikatzeak eta arau horien maiztasun irregularrak ez dute kontabilitate-informazioaren erkaketa hainbeste hobetzen.

2. Eguneratzea aplikatu ondoren enpresa baten ondarearen zifra handitzen delako egoera hobetu dela pentsatzea ez da zuzena: enpresak ondasun eta eskubide berdinak ditu, hau da, ez da aberatsagoa. Beraz, nahiz eta balio desberdinetan adierazi, bere ondarea termino errealetan berdina da.

3. Aurrekoarekin erlazio zuzenean, enpresaren kaudimena ere ez da hobetzen. Epe luzeko kaudimena kalkulatzeko adibidez, enpresaren epe luzerako eta epe laburrerako zorroreko aktiboetan daukan guztia konparatzen da. Eguneratzearen ondoren, zatidura hau nominalean igo egin da, baina, azaldu dugun bezala, enpresak hasierako ondasun eta eskubide berdinak ditu; beraz, bere kaudimen erreala ez da aldatu. Bestetik, normalki, eguneratu daitezkeen ibilgetuko elementuak beharrezkoak izaten dira enpresaren jarduera aurrera eramateko, eta ez dute helburu bezala salmenta. Orduan, lehenago ondasun horiek ez badira inoren ganatu (likidezia bilatzeko), eguneratzearen ondoren ere ez da zertan horrela egingo.

4. Enpresaren jarduera dela eta, Emaitzen Kontuak epe labur batean galerak adieraziko baditu, galera horiek handiagoak izango dira eguneratzea aplikatzearen ondorioz, esan bezala, amortizazio-kuotak handitu baitira.

5. Horrekin lotuta, etorkizuneko mozkinak txikiagoak izango direlarik, bazkideen arteko banaketa murriztu egingo da.

6. Eguneratzearen ondorioz, enpresa ikuskaritza egin beharrean gerta daiteke (ikuskaritza derrigorrez egiteko zehazten diren Aktibo osoaren mugak gainditzeko baditu).

7. Sozietatearen gaineko zergan Estatuko Legearen Subjektu pasibo direnek, estatuko Eguneratze Legea aplikatzearen ondorioz, Eguneratze-Erreserbaren % 3ko zerga ordaindu beharko dute, gastu ez kengarria dena.

## **Bibliografia**

Larriba Díaz-Zorita, A., (1996): "Un comentario inicial: Actualización de Balances", *Partida Doble*, 71. zbkia.

Quesada Sánchez, F.J., (1993): *Contabilidad e inflación*, Ed. Pirámide.

Yebra Cemborain, R. O., (1991): "Análisis de estados financieros en economías con inflación", *Revista española de financiación y contabilidad*, 1991.